

Informazio-zirkularra: 2022/09

Hernani, 2022ko irailaren 5a

BRINTZAREN BULEGOAREN ORDUTEGIA

Gogorarazten dizuegu irailaren 12tik aurrera 09:00etatik 18:00etara irekiko dugula bulegoa, astelehenetik ostegunera, ordutegi jarraituarekin, eta, ostiraletan, 09:00etatik 15:00etara.

AUTONOMOAK

Brintzak gogorarazten dizue **47 urtetik gorako** langile autonomoek badituztela kotizazio-oinarria aukeratzeko baldintza berezi batzuk. Kontuan izanda erretiro-pentsioa kalkulatzeko zenbatu beharreko kotizazio-urteen kopurua handitzea dela joera, gomendatzen dizuegu 42 urtetik aurrera oinarriak handitzen hastea, salbu beste alternatibaren bat bilatuz gero, hala nola BGAE bat kontratatzea. Edozein modutan, komeni da 47 urte bete baino lehen kontua aztertzea.

KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO AUKERA:

Langile autonomoek urte natural bakoitzean lau aldiz aldatu ahalko dute kotizazio-oinarria.

Oinarriak aldatzeko eskaerak aurkezteko epeak honako hauek dira:

- Urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, apirilaren 1etik aurrerako balioarekin.
- Apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean, uztailaren 1etik aurrerako balioarekin.
- Uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean, urriaren 1etik aurrerako balioarekin.
- Urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrerako balioarekin.

ZERGA-ARLOA – GIPUZKOAKO OGASUNAK PRESAZKO NEURRIAK ADOSTU DITU ZERGA-ARLOAN, PREZIOEN GORAKADAREN ONDORIOAK ARINTZEKO

Kontuan izanda zer neurri proposatu diren eta zein beharrezkoa den botere publikoek lehenbailehen esku hartzea gaur egun bizi dugun ezohiko egoera ahal den heinean arintzeko, nahitaezkoa da neurriak presazko prozedura bidez eta foru-dekretu/arau bidez onartzea (oraindik onartu gabe dago).

Aldaketarik esanguratsuenak:

- % 4 deflatatu da 2022ko ekitaldiko likidazio-oinarri orokorrari aplikatzekoa den tarifa. Bestalde, portzentaje bera aplikatuz (%4) eguneratu dira baterako aitopenaren murriztapenaren zenbatekoak, kuota-minorazioa eta kenkari pertsonalak ere.
- 2022ko irailaren 1etik aurrera, lan-etekin pertsonalei aplikatzekoa den atxikipen-taula egokitu da.
- Minorazio gehigarri bat ezarri da 200 euroko kuotan, 2022ko zergaldirako soilik, 30.000 eurotik beherako zerga-oinarri orokorra duten autolikidazio bakoitzerako. 200 euroko kopuru hori linealki murriztuko da, zerga-oinarri orokorra handitu ahala, eta 35.000 eurora edo hortik gora iristean desagertuko da.
- Diru-sarrera eta ondare baxuko pertsona fisikoei 200 euroko laguntza zuzena ematea ezarri da, salbuespen gisa, ekainaren 25eko 11/2022 Lege-dekretuaren esparruan. Era berean, salbuespen gisa, EAeko Administrazio Orokorraren 240 euroko laguntza arautu da, 12 hilabetetan banatzeko, sareak erabiltzeko gaitasunaren eta sarbidearen ondoriozko arrakala digitala murrizteko eta horrenbestez bereziki ahulak diren kolektiboen bazterkeria soziala saihesteko, Gobernantza Publikorako eta Autogobernurako kontseilariak 2022ko uztailaren 14an emandako agindu bidez.
- Pertsona fisikoen errentaren zerga ordaindu eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ez dute ordainketa zatikaturik egin behar 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan.
- Sozietateen gaineko zerga ordaindu eta zergaldiko eragiketen bolumena 50 milioi eurotik beherakoa duten zergadunek ez dute 2022ko ekitaldiko ordainketa zatikaturik egin behar (zergaldiko eragiketen bolumena hartzen da kontuan ordainketa zatikatua zehazteko), salbu zerga hori zerga-konsolidazioaren erregimen bereziaren arabera ordaintzen duten entitateen kasuan, une honetan duten likidezia handitzen laguntzeko.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.